



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN KORRESPONDENTZIA BANATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZENBAKIA: 3211.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Iker Basagoiti Larruzea,
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak/teknikoak: Tfno.94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA
1.- Kontratuaren xedea: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN KORRESPONDENTZIA BANATZEKO ZERBITZUA 2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, beste erakunde batzuekin eta 500.000 erabiltzailerekin baino gehiagorekin dituen harremanetan, posta-banaketako zenbait zerbitzu behar ditu, hala nola korrespondentzia arrunta edo presazkoa, nazionala nahiz nazioartekoa, paketeria, telegramak, administrazio-jakinarazpenak eta bestelakoak. Horiek guztiak argitaratu eta lizitatuko dira. 3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: Lizitazioa kontratu bakar bat adjudikatzeko da, eta ez dira banatuko loteetan ez prestazioak, ez xedea. BBUPen posta-zerbitzuak bi lotetan lizitatu izan dira, bidalketa-motaren arabera. Nolanahi ere, lote honi dagokion kontratua ezin izan da luzatu; izan ere, posta-zerbitzuen emaileak onetsi eta argitaratu dituen prezio-igoerak direla-eta kontratua ez da nahikoa.
4.- CPV: CPV kodea: 64110000-0 Deskribapena: posta-zerbitzuak.
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa ☒Administratiboa ☐ Pribatua



C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	EHUN ETA HOGETA HAMAR MILA EHUN (130.100,00) EURO
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 312.240,00 euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Prezio unitarioak	
4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa: Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: URTEA: 2025EKO PARTIDA: 925.01 22202 6.000,00 € URTEA: 2026KO PARTIDA: 925.01 22202 124.100,00 €	
5.- Prezioen berrikuspena: ☐ BAI ☒ EZ	
6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arrunta. Hileko ziurtagiria.	
8.- Konturako ordainketak: Ez	

D.- KONTRATUAREN EPEA	
1.- Iraupen osoa	URTEBETE (1)
2.- Epe partzialak.	☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena	☒ BAI ☐ EZ URTEBETE (1).
4.- Bermealdia:	URTEBETE (1).
5.- Kontratua exekutatzeko tokia:	Hainbat udalerri.
6.- Lanak zatika jaso daitezke	☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK	
☒ Behin betiko bermea: % 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA	
Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko ordainketa halako bat izan beharko da gutxienez.	130.100,00 euro.



G.- GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

Korrespondentzia banatzeko lanetan izandako esperientzia. Azken bost urteetako egikaritze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa 91.103,89 euro edo gehiago izatea; hots, gehieneko gastu-aurrekontuaren batez besteko kopuruaren % 70.

Honako honen bidez ziurtatuko da: Azken bost urteetan egindako zerbitzu edo lanik garrantzizkoenen zerrenda (baldintza-agiri honen eranskin gisa ageri den ereduaren arabera), horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publiko zein pribatua adierazita. Egindako zerbitzuak eta lanak egiaztatzeko, organo eskumendunak igorritako edo onetsitako ziurtagiriak erabiliko dira hartzailea sektore publikoko entitatea denean edo subjektu pribatua denean. Horretarako, organo horrek ziurtagiri bat igorriko du edo bestela, enpresaburuak adierazpen bat aurkeztuko du;

Enpresa lizitatzailerik 43/2010 Legearen IV. tituluan zehaztutako posta-zerbitzuak emateko araubide orokorra beteko dute (43/2010 Legea, 2010eko abenduaren 30ekoa, posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzkoa).

Hori horrela, hauek izan beharko dituzte:

1. Posta-zerbitzu unibertsalaren esparruko posta-zerbitzuak emateko administrazio-baimen berezia.
2. Erantzukizunpeko adierazpena, Posta Sektorearen Batzorde Nazionalen aurkeztua, 43/2010 Legearen IV. tituluaren II. kapituluaren aurreikusitako baldintzetan, posta-zerbitzu unibertsalaren esparruan sartzen ez diren posta-zerbitzuak emateko. Zehazki, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalen aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpena beharko dute, FOM/845/2015 Aginduak onetsitako ereduaren arabera (FOM/845/2015 Agindua, maiatzaren 7koa, posta-zerbitzu unibertsalaren esparruan sartzen ez diren posta-zerbitzuak emateko gaitzen duen erantzukizunpeko adierazpenaren eredia onesten duena —2015eko maiatzaren 11ko BOE, 112. zenbakia—.
3. Posta Sektorearen Batzorde Nazionalaren mendekoa den Enpresen Erregistro Nagusian inskribatu izanaren ziurtagiri eguneratua, hauei dagokienez: egoera administratiboa, ziurtagiria berritzea, altak, bajak eta aldaketak.

Aurreko ziurtagiri horiek ezinbestekoak izango dira lizitazioan parte hartu ahal izateko, non eta ez den posta-zerbitzu unibertsala emateko izendatutako zerbitzu-emaile bat, 43/2010 Legearen lehen xedapen gehigarriarekin bat.

☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoa:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeko ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

Eskatutako kaudimen teknikoaren ordezkari honako sailkapen honek balio izango du:

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai, fakultatiboa ☐ Ez

R taldea, 9 azpitaldea, 1 kategoria.



H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Irizpide teknikoak baloratzeko beharrezkoa dena, bereiz sartu beharko dena balorazioa egiteko. Dokumentuen artean dago egiaztatzen dituen nahitaez bete behar diren alderdiak, betetzen ez badira eskaintza teknikoak kanpoan gelditzea dakartenak.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatua, l. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- Bidalketa-mota bakoitzeko deskontuak, zerrendatuta, zerbitzu-emailaaren tarifa ofizialen aldean, eskaintza zehazteko eskaini behar dituenak, prezio horiek gutxi gorabeherako unitateei aplikatuta, 1. eranskinean jasotzen den bezala. Eskaintza ekonomikoa kalkulatzeko, 2025eko tarifa ofizialak hartuko dira.

Eskaintako deskontuak ezberdinak izan daitezke bidalketa-mota bakoitzean eta ez dago gutxieneko deskontu bat bakoitzerako.

Urteko eskaintza ekonomikoa ezin izango da 3. atalean (lizitazio-mota) zehaztutakoa baino handiagoa izango.

Baldintza-agiri honen eranskin bakoitzean aipatzen den mota bakoitzean egin beharreko bidalketen kopurua gutxi gorabeherakoa da eta lote bakoitzeko eskaintza ekonomikorik onuragarriena zehazteko erabiliko da.

Kontratua adjudikatu eta zerbitzua ematen hasi ondoren, adjudikaziodunak ezin izango dio erreklamaziorik egin BBUPi mota bakoitzean bidalketa gehiago edo gutxiago esleitu zaizkiola dela kausa. Gainera, adjudikazioduna behartuta egongo da tarifa ofizialari dagokionez eskaini dituen deskontu unitarioetan ematera horiek; betiere, Sektore Publikoko Kontratuen Legean zehaztutako mugak betez.

Kontratuaren gehieneko balio gisa zehaztutako prezioak honela lortu dira: 1. eranskinak jasotzen duen bidalketa-mota bakoitzerako zehaztutako gehieneko prezioak (inolako deskonturik gabe) eranskin horien parte ere diren mota bakoitzeko unitateen gutxi gorabeherako kopuruari aplikatuz.

Egin behar den mota bakoitzeko bidalketa-unitateen kopurua gutxi gorabeherakoa da eta eskaintza ekonomikorik onuragarriena zehazteko erabiliko da. Kontratua adjudikatu eta zerbitzua ematen hasi ondoren, adjudikaziodunak ezin izango dio erreklamaziorik egin BBUPi mota bateko edo besteko bidalketa gehiago edo gutxiago esleitu zaizkiola dela kausa. Gainera, adjudikazioduna behartuta egongo da eskaini dituen deskontu unitarioetan ematera horiek; betiere, Sektore Publikoko Kontratuen Legean zehaztutako mugak betez.

Ondorioz, kontratuaren egikaritze-maila baliteke bat ez etortzea, beherantz nahiz gorantz, gehieneko prezioen gainean eskaintzen diren deskontuak kontratuaren gehieneko balioa zehazteko erabilitako unitateen kopuruari aplikatuzetik ateratzen den zenbatekoekin.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

Lehendakaria:

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Menthaka Corral.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga.

Xabier Orue Moro.

Itziar Zarate Urrutia.

Gerardo Latorre Pedret.

Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekokoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
$(B_{max} + BBB) / 2$	48 puntu
BBB	47 puntu
$0,8 \times BBB$	46 puntu
$0,6 \times BBB$	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua.....	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < Bi \leq BBB$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < Bi \leq (BBB + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBB)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBB - Bmax)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Posta-sarearen ahalmena **0 eta 30 puntu artean**

- Lizitatzaileraren sare propioaren banaketaren estaldura-maila Bizkaian, Estatuko gainerakoan.
- Bezeroen arretarako bulegoak; kopurua, ordutegia, kokapena...
- Posta-bidalketak tratatzeko zentroa; kokapena eta kopurua.
- Horren prozedura eta bermeak administrazio-jakinazpenetan, kasu hauetan: entregatu eta jasotzea, absentzia, ez onartzea, helbide ezezaguna eta heriotza, besteak beste.

Zerbitzua emateko kalitate-bermeak **0 eta 10 puntu artean**

- Entrega-epeak neurtzeko sistema, horiek egiaztatzeko modua eta abar.
- Entrega-epeakiko konpromisoak.
- Posta-entregak bueltatzea (konpromisoak, epeak...).



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Zerbitzua emateko proposamen metodologikoa 0 eta 5 puntu artean

- Zerbitzua emateko giza baliabideak eta baliabide teknikoak egokitzea.
- Bidalketen eta albaranen jarraipena egiteko sistema eta fakturazio-sistema.
- Kudeatutako bidalketen txostenen eredua; hilekoa, urtekoa eta abar.

Erreklamazioen eta kexen kudeaketa 0 eta 5 puntu artean

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarriko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko hamar unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko hamar unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko hamar unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko hamar unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailerari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:
Ez da aplikagarria

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatik erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztatzea.



Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Zein baldintzatan egin daitekeen

Kontratuaren gehieneko balioa bidalketa-mota bakoitzeko gutxi gorabeherako unitate-kopurua bider Correosek 2025erako zehaztutako prezio unitario ofizialaren biderkaduratik lortzen da. Kontuan hartu behar da, halaber, kontratua egikaritu bitartean prezioak Correosek onesten dituen tarifen arabera eguneratzen direla. Horrek eragin dezake unitateak benetan ez badira ere iristen kalkulaturako unitateetara prezio-gorakada dela-eta (ez dago jakiterik bilakaera zein izango den) kontratuaren gehieneko balioa agortzea.

Aldaketaren irismena

Aldaketa-ehunekoa hauen arteko aldearen arabera kalkulatu da: 1. eranskinetako taularen arabera kalkulaturako kontratuaren gehieneko balioa eta dagokion urteko tarifa ofizialak 1. eranskinean aurreikusitako unitateei aplikatzearen emaitza. Eragiketa horretan lortutako ehunekoa kontratuaren gehieneko balioa eguneratzeko erabiliko da.

Aldaketak gehienez kontratuaren prezioan ukitu ahal duen ehunekoa

Aldaketa gehienez ere % 20ra iritsi ahal izango da, izan daitezkeen aldaketen arabera. Hauen ondoriozkoak izan daitezke aldaketak: unitateen kopurua handitzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen hogeita hamargarren xedapen gehigarriaren arabera, eta zerbitzu publikoaren betebeharren araubidean emandako posta-zerbitzuen prezioak aldatzea.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra

Ez da azpikontratatzeko aukerarik izango, azpikontrataturako enpresak ez badu azpikontratazioaren xede den kontratuaren zerbitzua emateko administrazio-baimenik. Kasu horretan, posta-zerbitzuak ematen dituzten enpresen erregistro nagusian, behar diren ataletan, indarrean dauden inskripzioak, azpikontrataturako zerbitzu-motaren arabera.

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI

☐ EZ



BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Enpresak BBUPEkin hitz egiteko pertsona bat izendatu beharko du, Bezeroekiko Harremanen Sailarekin eguneroko harremana izateko; hartara, behar bezala transmititzeko informazioa eta emateko zerbitzua (Baldintza Teknikoen Agiriaren hamazazpigarren klausula).

Hona transkribatuta Baldintza Teknikoen Agiriaren hogeita batgarren klausula, egindako lanen ziurtapenak onartzean aintzat hartu behar diren zigorrak zehazten dituenak. Kasu bakoitzari dagokion erantzukizuna ezertan galarazi gabe, baldintza-agiri honetan posta-zerbitzuen araudian zehaztutakoa betetzen ez bada, zigorrak aplikatuko dira. Dagokion organismo ofizialak ezarriko ditu zigor horiek. Nolanahi ere, adjudikaziodunak Ur Partzuergoari kalte-ordainak emango dizkio objektu ziurtatu edo erregistratuekin gorabeherak izateagatik edo horiek galtzeagatik, bai eta korrespondentzia zehaztutako ordutegietan ez jasotzeagatik ere. Hona gutxieneko kopuruak, eskaintza hoberik ezean:

Objektu ziurtatu edo erregistratu bat galtzeagatik: ezaugarri bereko hamar bidalketaren kostuaren baliokidea. Premiazko bidalketa bat epez kanpo entregatzeagatik: zenbatekoa bueltatzea. Korrespondentzia ezarritako puntu eta orduan jaso ez den egun bakoitzeko: 20 gramo arteko gutun ziurtatu lokal normalizatuaren kontzeptuaren 50 unitateren baliokidea. Lizitatzailleak konprometitzen den kalte-ordainen zenbatekoa zehaztuko du eskaintzan, eta alderdi hori eskaintza teknikoaren analisisan baloratuko da.

Kalte-ordainak eta atzeratzen diren bidalketengatik onorio ekonomikoak ordaintzeko, horien zenbatekoa deskontatuko da gorabehera ebatzi eta ondo-ondoko hileko fakturretan. Atal honetan aipatzen diren kalte-ordainak bi hilez jarraian ezartzen badira, Partzuergoak kontratua deuseztatu ahal izango du, eta adjudikaziodunak kontratua zorrotz betetzeko ezarritako bermea galduko du. Lizitatzailleak, gainera, bezeroen arretarako bulego batzuk izan behar ditu Partzuergoaren eremu geografikoan, Baldintza Teknikoen Pleguaren hamabigarren klausulan ezartzen den bezala. Hona haren edukia: Aurreko paragrafoak aipatzen duen bulego-sareari dagokionez, Ur Partzuergoaren bezeroei gertuko zerbitzua emateko adjudikaziodunak gutxienez posta-zerbitzuetarako bulego bat izango du martxan Bizkaiko Lurralde Historikoko 3.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, bai eta Donostian eta Gasteizen ere. Betekizun hori bi hilabetez betetzen ez bada, BBUPEk kontratua deuseztatu ahal izango du, eta adjudikaziodunak kontratua zorrotz betetzeko ezarritako bermea galduko du.